

Asif

Xabier Artola Zubillaga

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2005



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



Asif

Xabier Artola Zubillaga

Julene Azpeitia 18. ipuin lehiaketa

2005

2. saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Artola Zubillaga (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Pentsazak, anaia, esaten ditek han gure haurrak despreziatu egiten dituztela, hil egiten direla herriminez, zeren bila joan nahi duk? Diruaren bila? Anaia, uztak aberatsek eraman dezatela beren hilkutxetan dirua! Bitartian hango fabrika izugarri batian bonbilla haundi bat fabrikatu ditek eta, haren argiarekin itsututa, dagoeneko eztizkiagu izarrak ikusten...

Pablo Sastre. Leuropa.

Marrakex

Ipar Amerikako ingumek Mexiko erdialdeko oihan beroagoak dituzte amets, udagoienak ondotik dakarren neguaren hotza iragartzen duelarik. Euskal Herriko erreketako ur gezak dituzte amets Atlantiko erdian jaiotako aingirakumeek.

Djamaa el Fna mukurutu egin ohi da ilunabarrero, suge-sorgintzaileek, datil-saltzaileek, beste garai bateko kontu-kontalari eta urketariak, inongo turista jendeak betetzen dituzte plazako txoko guztiak, egunean zeharreko sapa zerbait arintzen delarik. Urrutira, Atlaseko mendi gailurretan temati dirauten elur orbanek egiten diote irri sakana zapaltzen duen gohari. Atsedentxo hartu du urketari gazteak, eta kontu zaharrak plazara ekarri ohi dituenari adi geratu da, jende artean. García Márquez-ek dioen legez, kontalarien, griot-en leinu hau ez dago ehun urteko bakardadera zigortua, ehun mila eta bat urteko gauetan beren albora bilduko baitituzte entzuleak, ipuinok entzunik kontalari bihurtuko diren entzuleak. Urrutiko eta aspaldiko istorio bat ari du, oraintxe, plazan diharduen kontalari horrek, behinolakoa bezain etorkizuneko litzatekeen kondaira. Afrikatik urrun, Parisa joandako gizon harena ari da esaten, nola gizaseme hark, urte luzeetan, erbestean zela, herrian utzitako semearekin elkartuko zen eguna izan zuen amets, harik eta,

oharturik semea ez zitziola behin ere bilduko, ostera jaioterrira itzultzea erabaki zuen arte. Iritsi zelarik jakin zuen, baina, semea bezperan irtena zela Paris aldera, ez dakigu sekula ailegatu ote zen. Eta bada dioenik, hau ere batek daki egia ote den, baina kontalariak senez daki holakoek aberasten dutela istorioa, eta bideko bentaren izen-lekuak ere aipatu ditu indargarri, aita-semeek, bidean topo egin zuten arren, ez zutela elkar ezagutu, izan ere, hainbat euri eta haizetek ezabatuak baitzituzten ordurako gera zekizkiekeen ezaupideak. Ur saltzen dabilen nerabeak turista batzuk begiztatu ditu, jende multzotik gertu, eta haiengana abiatu da zalu. Kloro pastillak eraman ohi ditu aldean azken boladan, zenbaitetik ez baitu, bestela, salgai dakarren ur horretatik edan nahi, ez dira fio, nonbait, eta mutilak nahiago du, hamaika aldiz, berak eskaini urarekin batera, ezen turista poltsatik pilulatxoa hartu eta bere aurrean nola botatzen duen ikusi beharra baino. Eramanezina zaio. Urruti, oso, aitonak, eta aitonaren aitonak, Marrakexen mendeetan banatu izan den urik onena kalez kale saltzen zuten garai hura. Ikusi al dun horko hori, ez zagon batere gaizki, ez da? Turistaren lagunak ez dela horrenbesterako pentsatu du, baina arrazoi eman dio, halere. Neskazaharren kontuak, egin du bere baitan, aspaldi esan ninan, Karmele, hobe huela, hala geratzea baino, eskolako zuzendariarekin bada ere, baina ez, hik askatasuna behar omen huen, eta hara, orain, lurralde epelok beheko hori berotzen dinaten bezain pronto, hor hoa edozeinen atzetik, txakurra txakurraren atzetik bezala. Hots egion, jatorra ematen din... Eh, Mohamé, hator hona, zer duk salgai? Inguruetako urik ederrena, *mesdemoiselles*. Mutil atsegina da, eta Karmeleren oporkidea ere gustura egon da berriketan harekin, plazako kafetegirik dotoreeneko terrazan eseri direnean, itzalean goxo. Beharko itzalean, udaberri hasiera bada ere berotu egiten baitu eguerdi partean, nola moldatzen zarete hemen freskotasan apur bat izateko, eta, erantzuna baino lehen, nora joan daiteke martxa pixka baten bila gaur arratsean, ari zitzaion Karmele ordurako mutilari, lagunak basoak hartu eta komunetara jo duenean, zikin samar zeudela eta. Sobera ezagutzen du, eta badaki Karmele horrela hasten denean zeren xerka dabilen. Ordu erdi bat ez da esan dionetik ez duela ezer behar, ea oraingoan ez gaituzten engainatzen moro hauek, neska, eta hasia da dagoeneko tapizen kalitateaz galdezka, Fezekoek baino fama hobea dutela-eta hemengoek, eta ea Mohamé honek ezagutzen duen saltoki onik. *Ona eta merke* dio mutilak, euskaraz, Mohamé esaten diogu, ez zekinat hala den, baina hik, neska, denei Mohamé edo Alí deitu eta egin daukan. Parrandarako lekuak baino, azokako saltzaileak ditu lagun mutilak, horietara turista ingurarazteak saria baitakar sarri. Gazteagoa iruditugatik, hemezortzi urte beteak dituela diotse urketariak. Frantsesez mintzo dira, azokako kale estuetan barrena saltokiz saltoki dabilzala. Laguna atzean geratu da pixkanaka, batarekin eta bestearekin solasean, eta beste bietatik galdu-edo egin da azkenerako, kanpoaldean paraturiko kobre eta letoizko ontziteriak barrua ia erabat ezkututzen zuen denda batera sartu denean. Bitartean, Karmele eta mutila honen lagunen dendetan ibili dira, te berde mendafinez lurrinduak dastatzen han eta hemen, egur landuzko tresna-ontziak, metal merkeko bitxi-zilarrak, tapiz berberek, oihalak ikuskatzen, zer ez dute saltzen basamortuaren atari den hiri honetako azokan! Kale sabai espartuzkoak ez ditu jada iragazten, eguerdian bezala, arratseko eguzki gezi eroriak. Saltzaileek, lurretik jaikitzen direla, keinu batez egiten diote agur erostuna dakarkienari, zer esan dik horrek, badituela alfonbra onak, nahi baduzu, erakutsiko dizkigula pozik. Ile usainak betetzen du airea tapiz saltokiotan, gamelu ilea, zeta eta artilea lur eta landare kolorez tindatuak ageri dira, eskuz ehunduak omen diren tapizetan, eta margo biziz blaitzen dituzte

horma-zoruak. Neskaren jatorria usaindu orduko berberetartzen dira saltzaileak nahiz beren salgaiak, doakoak izaki salmenta erraztu dezaketen elkartasun keinuak. Mohamé hauek mutil euskaldunak baino gehiago arrimatzen dira, gustuko dute gorputzen gertutasuna, hori darabil gogoan Karmelek mutilaren epeltasuna hurre sentitzen duen bakoitzean. Haren eskua ipurmasailean pausatzen ere sumatu uste izan du halako batean, baina irribarre zozo batez erantzun dio mutilak bere irribarre maltzurari, iruditu egingo zitzaion. Laguna, berriz, hoteleko halleko dendetan ibili da kuxkuxean, Karmeleren zain zegoela. Kanpoan ilun da dagoeneko. Hara, hor dator apain-apain, norako ote gara orain, Mohamé etortzekoa izango da, apustu egingo nuke, hemen behar zuen honezkerok, bai, Mammounia hoteleko diskotekara joatekotan gaitun afalondoan, gogoratzen haiz hango olibondoez, gau giro ederra zegon, gurekin etorriko haiz, afarria ordaindu beharko zionagu, baina hartuko dinagu mokadu bat plazako postu horietako batean, merke zeuden hemen gauzak. Handik puska batera ohartu da, eta builaka ekin dio, errua lagunarena balitz bezala, kartera galdu dinat, hi, dirua, txartelak..., seguru azokako postu horietako batean xixkatu dizkidatela, ez zunan, ba, hire laguntxo hori izango, ez dun oraindik azaldu, zer ordutan zineten elkartzekoak?

Txiza egitera jaiki denean hartu du erabakia, diru hori aski omen duk, mila eta zazpiehun euro, lehengusua ere gutxiagogatik eraman ziaten, eta Asilah-ko horiek fidatzekoak dituk. Haiekin alde egindakoak ez dira itzultzen, ez dituzte zurezko kutxa merkeetan etxerutzen, eta deitzen dute, goizago edo beranduago, baina deitu egiten dute etxera. Txorrotaren luzeak beta eman dio behera erreparatzeko, eta Jasminkarekin gogoratu da, duna atzera limurtu nahi izan zuen azken aldi hartan, eta erabakia ordukoa duela pentsatu du, gaur arte ohartu ez bada ere, neskak ezetz esan zion une hartantxe deliberatu zela. Turistarekin gaua goxo-goxo pasatzeko aukera galdu izana darabil gogoan, heldu samarra huen baina bazian nondik heldu *Karmela* horrek, ez huen gaizkitxo pasako tarte bat haren ondoan, eta zakila tentetzen sumatu du eskuan, eta Jasminka etorri zaio osterara akordura, estu-estu zunbulaka biak harea artean, ezezkoaren aurreko jolasak artean baiezkoa iradokitzen zuela. Pixka bat ibiltzea aski izan du zetorrenaren geldiezina nabaritzeko, bere deliberoaren atzeraezina bezain irmo nabaritu ere, eta, kukubilko jarriz, husteraino jarraitu du. Muezinaren ahotsa urratu du meskitako megafoniak, Kutubijako dorretik, kasbah-ko etheen gainetik Marrakexko goizabarra bortxatuz.

Itsasoa

Ipar aldeko hotzak bultzatzen ditu hegaztiak hego aldera udazkeneko, lurralde beroen bila. Ez dira denak helburura iristen. Udaberrian, berriz, osterara beren jaiolekuetara itzuliko dira.

Ez da Mohamé, ez eta Mohammed ere, Asif da. Halaxe esan dio amonak agurtzerakoan, hobe duk, bai, Asif, hemendik nora edo hara abiatzea, lekutara bada ere, zer geratzen zaigu hemen, bestela... eta isildu egin da, beste horiek bezala hasi behar al dugu, ba, kamioneta zahar bat lehergailuz kargatu eta hormaren kontra zartatzen, suerte pixka batekin amerikano putasemeren bat harrapatuko dutelakoan... Zertarako, jarraitu du, Asifek ez dakike xuxen zertaz

ari den orain, azkenean hormaren kontra beti geu, geure esperantzak dituk, geureak, aireratzen direnak eztanda bakoitzean. Hoa, umea, eta egin ezak bizimodu bat, hire aitona ere horixe aholkatuko ziakeen, hemengo urketarien garaia joana duk betiko, turisten fotoetarako baino ez ditek honezkero balio. Denbora denbora zelarik, eta euria zerutik estreinako aldiz isurtzen zenean, gure amatxik kontatzen zigun... horrela ekin ohi zion beti Asifin amonak, familia osoa afalondoan elkartzen ziren garaiak ziren haiek, munduko herri oro munduaren eta gizakiaren sorrera azaltzeko ipuinen beharrak bateratzen zituenekoa, globalizazioa batzuek uste baino lehenagokoa izaki, eta ordutik aditu ditu Asifek joandakoen istorioak etxean ere, atzo Marrakexko plazan aditu zuen horren antzekoak, joan eta sekula itzuli ez direnenak, baina baita urte askoren ondoren beretarren bila itzultakoenak ere, edota, dirua eginda edo ez, osteraren beren habietara bihurtutako haienak. Sahara aldera bidaliko duten beldur da, hemezortzi urte bete berriak ditu eta laster deituko diote soldadu joateko, eta pentsatu du, alde egitekotan, hobe duela lehenbailehen, Hassan lehengusuak ere horixe egin zian, primeran ibiliko duk hura Frantzia aldean, hala ziotek behintzat han ezagutu dutenek, guri-guri dabilela. Asilah-rainoko bidea kamioi batean egin dute. Sosak bildu dizkiena Marrakexen gelditu da, uste zuen Asifek eurekin etortzekoa zela, itsas bazterreraino bederen, horrela ulertu zion, baina azken unean ez da kamioira igo. Gau iluna da herrira iritsi direnean, eta inork ez du pentsatu jende honek lotarako bazterren bat beharko zuenik, txoferrak ez daki ezer, berak honaino ekartzea zuen agindua, eta etxera itzuli behar du lehenbailehen, niri ez galdetu, nik ez dakit deus ere. Itsasoa ez da ikusten, beltz sumatzen da. Olatuen orroa etengabea da izarrez jositako gau ilunaren azpian, beldurgarria itsasoa sekula ikusi ez duenarentzat. Asifek akordura ekartzen du maiz nola, oso txikitari, Essaouirako hondartzara eramanean zuen amonak, eta itsasoa izugarri handia iruditu zitzaizkion gogoratzen du, handia bezain ederra, eta uretan sartu eta kolore biziko arraintxoak zebiltzala igeri, eta, higitzen zirela, distira berde-urdinez urreztatzen zutela ur gaina. Eguna argitu aurretik hondarrean egoteko agindu diete, txalupa huts egin nahi ez badute. Gaua labur egin zaio Asifi, lagun bat aurkitu du-eta berrikerian jarduteko, Zagorakoa bera, mendien beste aldekoa, beltza, afrikarra. Kamioian ezagutu dituenak bera bezala sumatu ditu gau osoan, hara eta hona herri mortuan barrena, nora ezean, denborari denbora nola kenduko. Itsas ertzeko hilerri zuriak erantzun dio estreina ilargiari, irten denean, eta ganga kareztatuaren inguru almenatua begiztatu dute orduan Asifek eta zagorarrak beren talaiatik, hilobi esmaltatuak beharaxeago, itsasoa urrutira. Ordu batzuk geroago eguzkia irten denean, artean ikustatzen zen kostaldea bateletik, baina hastandu ahala urtu egin da bidaiarien ikusmenean, eta ez dute geroztik egun osoan lur mutur bat bera ere bistatu. Itsas zabalak preso sentiarazi du urketari ohia. Bere aldamenean mutil beltzaran bat, isila oso, bartko laguna. Zagoratik datorrela esan dio berriro, handik Marrakexerainoko bidea oinez egina dela, ezagun du oinetakoetan, ia lau egun hautsa harrotzen, Draah-aren harana, Uarzasat, bortua... hiria, azkenik. Aitona Parisen duela, laster erretiratzekoa, eta ba omen daukala lanposturen bat beretzat lortzea. Lehorrean oso hitzuna ez, are isilagoa iruditu zaio Asifi itsasoratu direnetik. Batelaria, berriz, gizon zakarra da, lehorra, buila egiten besterik ba ote daki. Eguarteak luze jo du, eta eguerdi aldera itsasoa ere haserretu egin da, batelaren jabearen tankera hartu duela pentsatu du Asifek. Hegazkin bateko bidaiariak hegazkina lur hartzera doalarik bezain inoren eskuetan sentituko dira txalupakoak orduan. Inork ez du jakingo esaten zehatz-mehatz zein mementotan eta nola gertatu den, baina olatu batek, halabeharrendaren jostun, ababorreko kareletik at bota du Zagorakoa,

gerora jabetu dira haren faltaz, eta juxtuan eutsi diote balantzari txaluparen alde berean ziren beste bidaiariek. Istant bat izan da, ustekabeak ez du gehiago behar izaten. Oihu batzuk gorabehera, baina, aurrera egin du batelariak, maiz suertatzen dira holako itsas kolpeak, emazkiozue eskerrak Alari txalupa irauli ez duenean, aurrera egin behar dugu, mutil horrek ez zuen igerian jakinen, itsasoarekin ez dago jolasik. Asifen kexuak haizeak eraman ditu, haren izenik ere ez zekien artean. Gerora otu zaio, hark ere ez zuela, bere gisa, trebezia handirik izango uretan, hego aldeko ibaiek ur txikia eraman ohi dutela, ezer daramatenean. Dagoeneko badakite denek alferrik dela bateltzainari ezer esatea, eta isilik geratu dira. Olatuaren unean ume txikia titiari helduta zeukan emakume gazteari begira geratu da Asif, eta haren gorputzaren kontra estutu da. Uhinen marruak are ozenago egiten du patera azpiratu duen isiltasuna. Haize bortitzak galzorian ibili du ontzia pare bat orduz, ez da komeni, bestalde, kosta egun argiz jotzea, esan die bateltzainak, eta amonarekin gogoratu da Asif, ondo egingo duk, umea, har ezak hau biderako, eskerrik asko, amona, berehala deituko diot, beste aldera iritsi orduko izango du nire berri. Ilun bistan hurbildu dira kostara. Batela ez dute urrun ainguratu, baina gerritik gora busti behar izan dute bidaiariek ertza irsteko. Hondarra zapaltzeaz bat ikusi ditu sastrakak ezkutatzen zuen autoa eta handik irten diren bi lagunak. Linternaz armatuak, seinaleak egin dizkiote bateltzainari, eta ertzeraino hurbildu zaizkio. Harekin hitz gutxi batzuk, eta beste zerbait, trukatu ondoren, auto aldera bueltatzen ikusi ditu Asifek. Gero, Patrol berdeko argiak piztu eta ospa egin dute. Ontzia ere kostatik gero eta urrunago ikusten zen.

Arropak-eta zertxobait lehortu zaizkionean, diru pixar bat bazuen oraindik, gehiena zerri horiek eraman dute, baina, eta errepidetik hiri aldera pasatu den autobus batean sartu da. Igo denean txoferrak egin dion begiratuak, eta, kobratzen zion bitartean, goitik behera erreparatzen ziola, aldameneko bati erdi esan dizkion hitzek, ongi aditu ez baditu ere, berehala ulertarazi diote Asifi atzerrian dela. Hirian, berriz, bera bezalako asko ikusi ditu, beltzaranak, autobuseko txoferra eta bera bezain azal ilunekoak, baita beltz-beltzak ere, eta lasaitu egin da. Gaua parke bateko banku batean etzanda eman du. Goizean egun ederra atera du, eta itsasoari begira pasatu ditu orduak, bere burua kostako herri batean atzera onik ikusi duenean. Itsasertzetik harago Asilah-ko argiak sumatzen zirela sinetsi nahi izan du, Asilah-koari hartu zion usain bera hartu dio beste alde honetako itsasoari. Txanpon batzuk haztatu ditu patrikan, azkenak edo, eta inguruan zegoen telefono kabina batera abiatu da, amonari deitzera. Etorinentzat baino geratu ez diren kabina horietako bat zen, eta ez zebilen, jakina, aldamenekora mugitu eta txanpona jan dio, ederki hasi gaituk, hirugarrenetik lortu du, azkenean, amonaren ahots erlastua entzutea, hemen nau dagoeneko, amona, deituko dut berriro ere.

Andoain

Zimbaweko saiak ikastun onak dira. Mina eremuetan itxarroteak lekartzakeen onuren berri ikasi dute, nonbait, eta hantxe paratzen dira animalien zelatan, zapartekoak noiz aireratu eta bazka bihurtuko dituen. Zimbaweko saiak ere putretuta daude erabat.

Espainiako hego aldetik ipar alderantz jo du Asifek, eta Burgosen barrena Gasteiza iritsi da. Gasteizko hotzak ipar alderago bultzatu, eta Gipuzkoako Andoain jo du, han jaitsarazi baitute trenetik, zeraman txartela kilometro asko lehenago zegoela-eta iraungita. Lurralde menditsua bilatu du, umela, tristea, udaberriko zirimiria lausotua. Aurki egin ditu lagunak, ez da lan gaitza beretarrak kalean topatzea, denak bateratsu kaleratzen dira, beren lantokietatik irteten direnean, eta taberna jakin batzuk dituzte elkartoki. Haietako baten bitartez lortuko du, handik egun batzuetara, lana, Goienetxe gizon ona duk, serio samarra baina ona, ikusiko duk, eta ez dik DV irakurtzen, hemen gehienek bezala. DV hori, berehala ikasi du, hemengo kristauek Biblia baino maiteago duten irakurgaia duk, gipuzkoarren eguneroko bizimodua ardetzen duen Korana, nagusiaren ahotsa, hor aurkituko ditek etorkinon gizarteratze egokiak nolakoa behar duen, hortxe gizasemeen premia horiek asetzeko nora jo ere, Asif, ikusiko dituk argazkiak azkeneko orrialdeetan. Paris ez da urrun hemendik, hala sentitzen du, eta Hassan ederki bizi omen da han, lan gutxi, garbia, eta sosak sueto. Oporretan hor azalduko zaiguk Marrakexen Mercedes batekin, ezkondu egin duk eta andrea eta guzti etorriko duk, familiako txikientzat opariz beteta, segurutik. Amona ere poztuko da, Hassan alproja samartzat zeukan eta ez zuen harengan itxaropen handirik, baina. Diru pixka bat osatu, eta Pariserantz abiatzeko asmotan da Asif ere, baina bitartean garajea etsi beharko. Garajea ez dago gaizki lotarako, egunean lanean erabilitako seinaleztar eta erreminten ondoan egin behar badu ere. Su txiki bat ere utzi dio nagusiak gosariak-eta presta ditzan, eta ez dio gehiegi kentzen asteko alokairutzat. Buruhauste bakarra udaltzainek bisita egin diotenean izan da, han ez daukala bizitzeko baimenik esanez etorri zaizkio, paperak eskatu baino lehen esan ere. Goienetxeren izena aipatzea aski izan da, ordea, eta harrezkero bakean utzi dute, ez dira berriz agertu. Hego haizea bere bafada lehorrekin datorrenean sentitzen da eroso Asif, bere herri aldeko siroko gorriaren zantzu urrunak antzematen dizkiola esango luke holakoetan, handik, basamortutik bertatik, istorioak ekarriko balizkio bezala sentiarazten du sargoriak. Duna magal hartan Jasminkarekin egon zen atzeneko aldiaz oroitu denean triste jarri da, baina keinu iluna berehalakoan argitu dio irribarre batek, haren aurpegi ikaratuak, orduan eramangaitza egin bazitzaion ere, haren xalotasuna baitakarkio gogora, zera ikusi eta beldurtu zenekoa, ez, Asif, mesedez, gaur ez. Hassanek ez zion gutxi-gutxitan esan, eta berak barre egin eta ez zion kasurik egiten, baina ez zion gutxitan esan, zakil puska horrekin arazoak izango dituk emakumeekin, eta baita asmatu ere Hassan alu horrek, hark bai jakin zertaz ari zen, zertan ote dabil orain Frantzia aldean. Arrazoi du berorrek, amona, maiz idazten dio amonari, Jasminkak ez bezala hark agudo erantzuten baitio, gutuna gutunari. Arrazoi du, bai, bankuekin kontuz ibili beharra dagoela dioenean, hemen ere, edozer egiteko haien mende dabil jendea, gaur joan naiz estreinakoz nagusiak soldata uzten digun bankura, kutxa esaten diote hemen, eta behi beltz belarri-handi batek gobernatzen du. Orain nagoen herri honetara iritsi nintzen egunean hotza zen galanta, amona, eta behi belarri-handi horren bulego baten bebarrura bildu behar izan nuen lotara, kutxazain izeneko aparatua gordeleku epelera. Ba handik kobratuko dut hemendik aurrera, paperen bat eskuratu dut-eta Goienetxeri esker, baina... jakingo balu zenbat kendu nahi zidaten berorri sos batzuk bidali ahal izateko, amona, ia-ia, eta ez naiz exageratzen ari, ia-ia bidali nahi niona adina kendu nahi zidaten, ebatsi, hola dira gauzak hemen. Eta zenbat zen esan didatenean, keinu itsusi bat egin eta ate aldera jo dut, lapur hutsak zirela esanez ahopeka, eta irtetera nindoala, heldu ez dit bada besotik segurtasuneko tuareg horietako

batek!, eta kaleratu egin nau bortitz, aste batzuetan ez zait besoko ubeldua ezkutatuko, urde zikina, beste moduren bat asmatu beharko dut etxera zerbait bidaltzekotan, behi zurrupatzaille horri, behintzat, ez diot emango irabazten dudan apurra, ez al zaio iruditzen, amona? Goienetxek behar bezalako familia du, perfektua, andrea, seme-alabak, nexka eta mutila, txakurra eta... neska, orain ez zaie neskame esaten, ekuadortarra. Diputazioarentzat egiten du lan, kontratapean. Asifen txokoa ere, Goienetxek errentan utzitako garajea, txaletetik hurbil da, zer, kontrapasan ala, halaxe galdetu zion aurkeztu zuten egunean, eta Asifek ez zuen piperrik ulertu, noski, badiat nik leku bat nahi baduk, ez haiz gaizki egongo han, beste zerbait bilatu arte behintzat. Hilabete joan da, eta mutila laketu da dagoeneko garajea. Igandea gaur, eta, eguna luzatu duela aprobeztatuz, atarian eseri eta urrutira kirikatzen ditu goienetxetarren ibilerak, txuletak parrillan erretzen ari direla. Anai-arreben artekoak ematen dio atentzioa, neskak nola erabiltzen duen neba gazteagoa, txotxongilo bat bezala. Amaiak hots egin dionean, Asif, Asif, Jasminkarekin egoten zenetik sumatzen ez zuen beroa sumatu du aurpegian gora, gatza falta zuela, eta ea ba ote zeukan pixka bat, sukaldera joateko gogorik ez zeukala eta garajeraino sartu ez zaio, ba, atzetik, gatz pixka bat, mesedez. Asifek ez du ulertzen zergatik jarri den hain urduri, nola kostatu zaion horrenbeste gatza aurkitzen, apal baten gainean kozinatzeke dauzkan gauza gutxien artean bista-bistan zeukan eta. Aita hoska dabilkizu, Amaia, banoa, Asifek ez zuen azertatzen leihatila zabaltzen, laguntzera etorri natzaio, aita. Mutilak ez du euskaraz jakin beharrik ulertzeko, gauza batzuk aditzeko aski ohi da tonua, eta ez zaio gustatu Amaiaren desenkusa, desenkusa kolorea baitzuten haren hitzek, inondik ere, gatzak-eta ahaztuta utzi eta korrika eta presaka irtete horrek, ihes egite txoro horrek. Amayita tuntuna, kapritxosoa, Amayita eta bere katutxo beltza, zer ez du egingo anaiari jostailua kentzeagatik, baina aspertzen denean hari aginduko dio katuari jaten emateko, bera lagunekin geratua dela eta berandutzen ari zaiola eta. Baina Amaia "neska polita" ere hor dago, goizetan Goienetxeren bila joan eta etxeko atea jotzen duenean ohetik jaiki berria aurkitu ohi duen Amaia horrek kentzen dio loa batzuetan, garajeko gau hotzetan maiz etortzen zaio akordura neska, aspaldi honetan, lanak ematen dizkio, bere jaiki berritako begi txikituak, txinatarrak, gustuko ditu oso. Holakoetan, Amayitaz ahantzarazi eta Jasminka ekartzen dio gogora neskak. Asif da lehena patrioarekin elkartzeko goizero, Asifek ateratzen ditu erremintak eta trafiko seinaleak garajetik, Asifek kargatzen du furgoneta Goienetxek gosaltzen duen bitartean. Galleta batzuk eskuan dituela irten ohi da etxetik nagusia, eta askotan eskaintzen dio Asifi bat edo beste. Furgoneta hartu eta brigadako beste langileen bila ateratzen dira biak gero. Nagusi txikia, aurrena, hori da koadrilako beste euskalduna, azpeitiarra, eta gainerako guztiak, gero, atzeritarrak, andaluzak gertuenekoa. Seinaleak jarri eta seinaleak kendu ibili ohi dira egun osoan, hizkuntza bakarrean daudenak kendu eta bitan daudenak jarri, zaharkituen orde z berriak, pintadak garbitu, autoreen batek jota okertutakoak zuzendu eta, beste zereginik ez dagoenean, itzalpe bat bilatu eta denbora pasa egon ordua egin arte, hori gutxitan gerta dadin ahalegintzen bada ere Goienetxe. Mendiari sarrailak jarriz barrutitzea izan ohi dute maiz zeregina, baserri inguruetakoko porlanezko estratetan hemendik ez eta handik ere ez, bertakoak bakarrik, utikan kanpotarrak, debekuak eta eragozgarriak, norabide honetan galarazita, beste hartan ibilgailurik ez, ez jo ezkerretara, kaskoa jantz ezak, bizikletari, baina igandean baino ez ibili, hamabietatik ordu bietara bakarrik, gainera, bestela harrapatu egingo haute, eta horretarako baimenduak zeudek autoak, garbi adierazten ditek seinaleok.

Zer, kontrapasan, ala, ez zaio ahanzten Asifi, eta, une hartan galderaren nondik norako osoa atzeman ez bazuen ere, ongi ikasia du honezkero haren zentzua, eta badaki ehiza zalea dela nagusia, eta nor bere gauzetan aurkitzen dituela hitzak dotoretzeko behar dituen irudiak. Paraden zozketa Kaletxikiko Hontza elkartean egiten omen da goizero, eguna zabaltzerako, eta kontrapasako hegaztiak dira jomuga, urte garai honetan, eta han egoten da Goienetxe askotan, udazkenean pasekoen zozketan bezala. Egun horietan, nagusi txikia arduratzen da, goiz partean, egin beharrekoek, ehizan ematen baitu eguarte osoa patroiak, hala tokatzen denean.

Festa

Txoriek ere langak kausitzen dituzte beren bidean, ustez mugarik gabeko aire zabalean. Euskal herrietako ehiztariak zeru goieneraino hedatzen dituzte beren hesiak, beren berunezko mugak.

Inguruko herri batean festak dituk, aitak lagundu behar naik, motoan bakarrik joaten ez zidak uzten. Goienetxek ez du gogo onez baietz esan, baina furgonetan sartzeko agindu dio, atea urruneko aginteaz irekitzen zituela. Ez zekien Asifek halako eskolta eramango zuenik Amaiak, festetarako bidean motoan, adaska horaila kaskotik at haizearen mende, lamia berbere baten antzo. Aitak nahiago izango zukeen txofer baino kopilotu joan, Asifen tokian bera, baina horrek Asifi gidatzeko eskatzea esan nahi zuen. Alabari bazterbidetik zuzen eta mantso joan zedin oihukatzeke errazago izango baitzuen kopilotuaren eserlekutik txoferrarenetik baino, bolanteari eutsiz Asifen gainetik builaka aritzea behintzat ez zaio eroso gertatu, eta nextak behar zuen gidariren bat, autobidea arriskutsua dago egun hauetan, eta ume hau setatu da, ba, gaur motoa hartu behar zuela, beti bezala alferrik izan da gero bere bila etorriko garela esatea, nahi duena egin dezala, hemendik aurrera ez da erraza izango pottoka hau gobernatzea. Gero deitu, deitu mobiletik, errepikatzen zion Goienetxek Hernaniko plazan utzi gaituenean, eta ez du alde egiteko keinurik egin, Asif alabagandik banatzen ikusi duen arte. Sanjuanetako gau haren ondoren, oso azkar pasatu ziren gauzak. Akordatzerako bi hilabete joanak ziren, eta neska urruntzen sumatu zuen Asifek, zergatik ez zekiela. Dantza frontoi ondoko ezkien azpian, garajera etorrarazi bide zuenekoa, gerora harrezkero igarri zion damu aurpegi gero eta nabarmenago hura, zenbat oroitzapen lauso, oroimena iraganaren moldatzaile, beti bezala artetsu, benetan jazo zena jazotzea nahi izan zuenarekin nahasian, edanaren ondorengo ajea estreinakoz, buruko mina, ezezkoaren mingotsa ametsaren gozoarekin bat, desegoki. Hasieran beste zerbait izango zuela pentsatu bazuen ere, gerora garbi ikusi zuen neskak ihes egiten ziola, nabarmen, garajeko atarian zela sumatzen bazuen ez zen kanpora irtengo lehen bezala, bere begi beltzei ez zien gehiago haren urdinen distirak erantzungo. Institutuko irakasleak berehala antzeman dio, ez daki zergatik baina hori aise antzematen zaie neskei, "beren bizitzako uda haren" ondorengo irailean osteria ikasgelako mahaira esertzen direnean, udaberriko nerabe hura umotuta larrazkenean, ez gehiago orduko ume hura oraingo emakume hau baizik. Behin baino gehiagotan harrapatu du lanari utzi eta sabaira begira, boligrafo burua ezpain artean biraka, Hernaniko festak gogoan, Hernaniko festetan izan baitzen, gaua aurrera zihoala, aitarekin lanean dabilen mutil horrekin, pentsatuko luke Asifek.

Dantza eske etorri zen hura beste andoaindar haiekin, aitaren koadrilakoak amarenekoei inguratzen zitzaizkien modura, hogeita hamar urte beranduago izanik ere berdin-berdin. Amaiak Asif baino ez zuen ikusi une hartan, hala bizi du mutilak, besteen artean argi eder, harekin egin nahi izan zuen dantza, haren besoetan sentitu nahi izan zuen orduantxe, haren gorputza estutuz, ametsetan gozarazten zion bezala gozaraziko ote zion egiaztatu nahi izan bailuen. Idazlana entregatzerakoan izan da, zorabioa eta lurrera, irakaslea ez da erorikoa galarazteko bezain erne ibili. Artatu duen medikuak, eskarmentuak hainbeste balio du, huraxe galde egin dio aurrena, haurdun al zaude, umea. Kontuz ibili hadi, badakin Donostian joan den astean ere zer gertatu den, gizasemeak gizasemea, gainera, kanpotar asko zebilen orain bazterretan, aitaren txorakeriak, eta nagusitu egingo zaizkigun deskuidatzen bagara. Beira fineneko pieza baillitza egiten dio kontu bere kuttunari, panpinak hila behar du, hondatuko ez bada, Rosenquist-en koadroak horrela interpretatzen ditu museoko gidariak, eta ezergatik ere ez luke nahi Goienetxek etorkin horietako batek bere panpina hautsi eta betiko hondatzea. Kontuz, umea, gogaikarri jartzen da holakoetan aita. Bortxaketak Donostiako alde zaharrean, magrebtarrak! Lapurretak, iaz, Erretereriako jaietan, marokoar batzuk ikusi omen zituzten inguruan bueltaka. Hegoamerikarrak, gaztelaniaz mintzatzen dira behintzat, Europako ekialdekoak, zuriak dira azalez, eta guk, berriz, gaztelaniaz txarto, azala ilun... dena gure alde! Garajetik sentitu ditu errietak aurrena, Amaia negarrez ere iruditu zaió aitaren oihuen artean, eta gero... *¡El moro, el moro!*, birritan entzun dio Goienetxeri, leiho ondoan builaka, eta aski izan du handik hanka egiteko tenorea zela erabakitzeke, hitz horiek ezin ezer onik iragarri. Zer esango ote zion Amayita horrek aitari? Dena nire bizkarrera botako zuen, halaxe egingo nuke, bestela ez da normala aita hola jartzea, moroa gora eta moroa behera, igual esan dio behartu egin nuela, kapaz urdanga txoro hori, erotuta dago jende hau. Ez du garajetik ezer jasotzeko betarik hartu, eta autobus berdeen geltokirantz jo du, juxtu-juxtu harrapatu du Donostia aldera zihoana.

Txoferrak ez dio begiratu onik egin espaloitik salto batez igo denean, hala iruditu zaió behintzat Asifi, ez dakit zer daukaten autobus txoferrek hara eta hona gabiltzanon kontra, finean guri esker bizi dira eta. "Maite zaitut"ka eta intzirika nire besoetan joan hintzenezan, baina hala izan ote zen, izan ote zen gau hartan Amaia garajea, Asif, seguru al zaude, ez huen hola pentsatuko, bere artean temati Asif, txolin horrek... Orain, berriz, lotsa-lotsa eginda kontatuko hien etxekoei, zer ibili hintzen, nola, norekin. Errazago da beti gezur erraz bat asmatzea, hori sinesteko prest dagoenak zer beste nahi du, eta Goienetxerekin ez dago bromarik, ongi ikasi nuen hori errumaniar harena gertatu zenezan, galde-galde hari, bizkarra ederki berotuta alde egin zuen etxera, ni brigadan lanean hasi nintzen aurreneko egunetako bat zen, etxerakoan, ez dakit xuxen nola sortu zen disputa, baina patroia haserre zen oso, eta denak isilik, Goienetxerekin ez du inork txintik ateratzen horrela asaldatzen denean, uste dut erremintaren bat harrapatu ziola poltsan, etxerako hartuta, jakina, eta garrasika ekin zion, eta besteak, hura ere ez baitzen isilik geratzekoa, bere onetik atera zuen nagusia azkenean, eta hau kolpeka hasi zitzaion denon aurrean, eskerrak Joxek, nagusi txikia esaten diotenak, apartatu zituen, bestela patroiak txikituko zuen gizajo hura, seko utziko zuen bertan, aurrena aitzur kirtenaz joka hasi bazen ere, halako batean kirtenetik heldu eta ia-ia eman baitzion buruarekin, eskerrak banatu zituzten, bestela ez-egitekoren bat ikusiko genuen egun hartan han. Izugarria zen, errumaniarra, berrogeita hamar urtetik gorako gizon puska, neskatxa bat

bezala negarrez ikustea, kamioira igo eta trasteak egunero bezala garajea jasotzera abiatu ginenean, eta koadrilako guztiak isilik, txintik atera gabe. Patroiak ez zigun egun hartan ohiko zerbeza ordaindu Kaletxikiko elkartean, egun bakarra, bestela egunero egin baitu hori, lanetik etxerakoan, trasteak gorde eta gero, baina egun hartan ez. Errumaniarra ez nuen gehiago ikusi, biharamunean ez zen lanera azaldu, bidali egingo zuen noski.

Paris

Egunen batean, monarka espezieko ingumek itzulerari ekiten diote, jaioren basoetarantz partitzen dira. Aingira helduek ere, erreketan behera abiatu eta itsas zabalerantz jo ohi dute, sortu ziren belarren artean bizia emanaz hiltzeko.

TGVa mantso-mantso doa Euskal Herrian barrena. Txartela Bordeleraino erosi du, zulatzailea beti lehenago pasatzen ei da, ea suertea daukan. DVren eta behi beltzaren erresumatik irten orduko, etxetxo teilatu-gorriek pinportatzen dute paisaia orlegi ia perfektua. Trenaren traka-trakak lokartuko duen beldur da. Ametsak, esna egin ohi ditugunak, etorkizunean ipintzen dute, nonbait, jomuga, baina badira iraganean ainguratutako ametsak ere, iragan hura gure modura egokitu eta gustagarriago bihurtzen digutenak. Itsasora lehenbiziko aldiz eraman zutenekoa du Asifek horietako bat, amonarekin Essaouirako hondartzan ibili zeneko hura, litekeena baita Asifek itsasoa orduan ezagutu izana, baina Asif horretaz oroitzea ezinezkoa da, hain zen txikia hori gertatu zenean, inoiz gertatu bazen. Asifek itsasoa Asilah-n ezagutu zuen, pateran itsasoratu bezperan, Zagorako mutilak eta biek, zioten ikarari aurre egitearren, gaua kontu kontari eman zuten hartan. Asifen itsasoarekiko estreinakoa Asilahko hilerritik entzundako orroa izan zen, orro haren izugarria, eta itsasoarekin batera heriotzarekin ere egin zuen topo, ustekabea. Hassanengana doa orain, baina ez du han Mercedesik aurkituko, eta ezkondu delakoa ere gezurra dela jakingo du, eta Parisen aurrera ateratzekotan, lana asto batek bezala egin beharra dagoela ikasiko du laster. Iraganeko ametsetatik ez dago itzarri beharrik, iraganekoak dira eta ondo dauden beren horretan, baina etorkizunekoetatik iratzartzen gaituztenean, nahiago genuke lo jarraitu. Eta Asif ere iritsiko da horretara, norberak iritsi behar baitu, eta denetarako izango du astia. Amaiarekikoak ere, nola izan ote ziren benetan, "maite zaitut" ik izan ote zen, behin eta berriz errepikatzen zion hitz politik ba ote, aita azalduko zen beldurrez egon zirela, bera behintzat bai, garajea, festatik bueltan, hola oroitu nahi du harekikoa. Baina horrela izan ote zen, ez ote zuen gauzak benetan nola izan ziren hobeto gogoratuko, Hernaniko hartan mozkortu ez balitz, bere bizitzan lehenbizikoz horditu ez balitz askoz ere oroitzapen gardenagoak izango zituzkeen, inondik ere, eta harekin dantzaz egin bazuen ere, lotsa-lotsa eginda hura, ezagunen batek ikusiko ote zituen beldur, hura ez zen sekula Asifen garajera etorri, erotuta!, eta ez da erraza jakiten nola Asifek neska "maite zaitut" ka gogora dezakeen, lanak ematen baititu nahiak oroimena hainbeste molda dezakeenik sinesteak ere, besteren batekin izan ote zen, inorekin izan bazen, edo, beste gau askotan bezala, irudimenari eraginez blai bukatu ote zuen, alkoholak utzi bazion, hori ere. Geltokian dira, Paris, Paris Montparnasse, *les papiers, s'il vous plaît*, lasterka irten behar izan du handik ere, hizkuntza ezaguna egiten dute behintzat hemen, baina jendarmearen bisaia ez zaio

gustatu, hemen ere hanka hutsik, antza denez. Pariseko geltokia handia da, zabala, aparte dago zorutik sabaia. Aurki ezagutuko ditu noski, arriskua ez du falta, *métropolitain* zikinaren zuloak ere, non sabaiek eta zoruak bat egiten duten ia.

Hassanen etxera iritsi denean festa da, erretiratu berri den marokoarraren despedida. Furgoneta karga-karga eginda dago atarian, festa bukatu orduko martxa dute, itxura denez. Aulki baten hanken artean bilduta koltxoi arraiekiko bat ageri da, toldokia ez da aski handia furgonetaren gaineko tontorra egoki biltzeko. Ezkaratzean sartu eta eskailerak igo ditu, ilunpetan. Hassanek egin dion ongietorria, haren *chambre* etxe izenekoa bezalaxe, bestalde, ez da izan espero zuena bezalakoa, etorri haiz, pasa, pasa, motel, goseak izango haiz eta. Etxezuloa jendez beteta dago, ez da zaila. Atlasaren haraindikoa duk omendua, Zagora inguruko herrixka batekoa, esan dio Hassanek. Semeak urte pare bat-edo egin zian berarekin hemen, baina aspaldi alde egin zioan, turistentzako hotela jarri zian han, herrian, eta hantxe geratu zuan. Berak, ordea, atzeneraino eutsi behar izan zio lanari, motel, erretiroko diruak kobratuko bazituen, makina bat izerdi, bai, hainbeste urtetan. Eta agindu omen ziotek fabrikako nagusiek ilobarentzat gordeko diotela berak uzten duen lanpostua, berehala etortzekoa bada behintzat, hainbeste merezi dik langile leialak. Baina ez zekiagu ezer ilobaz, duela hilabete batzuk etxetik atera zela, eta orain arte, motel. Musika doinuak, eta sukaldetik zabaltzen zen janari usain gozoa, etxeakoak egin zaizkio sartu orduko, Djamaa el Fna-ko giroa berritu diote gogoan. Leioa zabaldu dutenean, baina, patioko zokotik goratu diren zarata-kirats arrotzak gailendu dira.